

Literatura

Urrezko Biblioteka digitalaren alde

Elkar argitaletxeak iazko azaroan Urrezko Biblioteka saila jarri zuen martxan, 1990eko hamarkadatik Literatura Unibertsala bilduman publikatutako liburu deskatalogatuak berriz ere merkaturatzeko. Jarraian kontatuko duguna joan den mendeko argitalpen politikaren historiatxo bat da.

GORKA BEREZIARTUA

LITERATURA UNIBERTSALA bildumako liburuak zergatik dauden deskatalogatuta esplikatzea tokatzen da aurrena. Durangoko Azokan jakin nuen duela urte bi edo, Ibaizabalen standera hurbildu nintzenean, sailean argitaratutako titulu baten xerka –editorial horrek kaleratu zituen bildumako hasierako tituluak; gero Alberdania-Elkar tandemak hartu zuen lekukoa–. Ez zeukatela esan zidaten eta ez, preseski, publikatutako ale guztiak saldu zirelako. Antza, liburu horiek ez zeuden jada mundu honetan, gillotinatuta egin zituzten, paper-ore bihurtu, biltegian urte luzez hautsa hartzen eduki ondoren. Ray Bradburyren *Fabrenheit 451*eko eszena bat etorri zitzaidan gogora –exageratzeko berezko ohitura daukat–. Baina pena hartu nuen, hori da egia, itzulpenak egiten hainbeste izerdi eman ondoren debaldeko lana izan zela pentsatuta.

Balio literario handikoak dira, baina ez bestseller izateko asmoz argitaratutako liburuak; atzerriko hizkuntzetatik euskarara ekarritako obra klasikoak gutxi saltzen dira eta Eusko Jaurlaritzak 1989an EIZI Erekin sinatutako hitzarmena baino lehen, argitaletxeek mohikanotasunez publikatzen zituzten tankerako lanak, dirua galtzeko arriskuarekin, euren betebeharra zela pentsatuta. 1990eko hamarkadan aldatu zen kontua aipatu hitzarmenari esker eta gaurdaino 150 obra itzuli dira sailaren barruan.

Bestelako problemak sortu dira ordea, eta ez da txikiena izan, liburuak merkaturatzeko

modu egokirik aurkitu ez izana. Aurreikusitako tiradak ere handi samarrak ziren, artikulua ilustratzen duen Edgar Allan Poeren *Kontakizunak* lehen edizioan 2.000 ale atera ziren inprimategitik adibidez, nobedade arrunt baten bikoitza gutxi gorabehera. Eta saltzen ez. Eta biltegian pilatzen ari. Eta azkenerako, stock guztia suntsitu beharra.

Pentsa liteke beraz, Urrezko Biblioteka martxan jartzea pozteko moduko notizia dela, inongo dendetan aurki ezin zitezkeen obrak berriz ere irakurlearen esku jarriko direlako. Eta bada poztekoa, baina ez hainbeste; orain artekoa ikusita, leku berera iritsi eta berriz ipurdiz gora jausteko arriskua sumatzen baitut apustu horretan. Gainera, badaude alternatibak. Ez da txarrena Pentsamenduarien Klasikoak bildumarekin egindakoa: argitaratutako 130 tituluetatik ia denak www.ehu.es/ehg/klasikoak helbidean doan deskarga daitezke. Zentzu handiagoa ikusten diot horrelako zerbaiti, gutxi salduko direla jakinda paperean berriz argitaratzeari baino. Klaro, baina horretarako XXI. mendeko ikuspegia eduki behar. Badakizue, Internet eta gauza horiek.

PS: Literatura Unibertsala bildumako lan batzuk badaude sarean dagoeneko, www.armiarma.com/liburu-e helbidean. ■

